

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 804/2022 Erabakia, abenduaren 20koa. Onespena ematea Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorren 2022rako enplegu publikoaren eskaintzari

Bat etorri Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/1989 Legeak (azaroaren 7ko 16/1997 Legeak emandako idazkeran) 23.1 artikuluan xedatutakoarekin, "Administrazio Publiko bakoitzeko langileekin bete ezin diren giza baliabideak, hots, aurrekontu-izendapena dutenak, enplegu publikorako eskaintzaz beteko dira".

Bestalde, 2022rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 28ko 22/2021 Legeak 20. artikuluan xedatzen duenez, sektore publikoan sartu berriak diren langileak sartzeko (19. artikulua bat.e) apartatua jasotako organoak izan ezik), langileen birjartze tasa ehuneko 120 izango da lehentasunezko sektoreetan, eta ehuneko 110 gainerako sektoreetan.

Lege horrek, halaber, langileak birjartzeko tasak kalkulatzeko prozedura ezartzen du, kasu bakoitzean gehieneko ehunekoa aplikatu ahal izateko. Prozedura horren arabera, birjartze tasa nahikoa da eskaintza hau osatzen duten plazak gaitzeko, Funtzio Publikoaren Zuzendaritzak emandako txostenaren arabera.

Ordezkaritza duten sindikatuekin negoziatu ondoren, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen Testu Bateginak, urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsi zenak, 37.1.l) artikuluan jasotzen duena betez, erabaki honen xedea da onestea Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorren 2022ko enplegu publikoaren eskaintza. Eskaintza horretan sartzen dira, aurrekontu xedapenek langileak sartzeko ezarritako mugak betez, hutsik dauden lanpostuak, aurrekontu zuzkidura dutenak eta zerbitzu publikoen funtzionamendu egokirako atzeraezintzat jotzen direnak, barne hartuta enplegu eskaintzan bai sistema irekiz, bai barne sustapeneko sistemaz –sarbide sistema bietan txanda orokorrean zein ezinduentzako gordetako kupokoen bidez– bete behar diren plazak.

Arabako Lurralde Historikoko aurrekontua gauzatzeari buruzko Foru Arauan ezarritakoarekin bat etorri, aztertu da Kontuhartzailatza eta Kontrol Zerbitzuak eman duen aurretiazko fiskalizazioaren 1113/2022 zenbakiko aldeko txostena.

Arauzko txostenak ikusita eta horietan oinarrituta, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuak hala proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran aztertu ondoren,

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. 1. Onespena ematea Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorren zerbitzura dauden funtzionarioen eta erabaki honen eranskinean jasotzen diren plazen 2022rako enplegu eskaintzari.

2. Hautaketa prozesuak arrazionalizatzeko eta haien eraginkortasunerako, erabaki honek barne hartzen dituen plazak 2019ko, 2020ko eta 2021eko enplegu eskaintza publikoetakoei erantsiko zaizkie. Eskaintza horiek, hurrenez hurren, Foru Gobernu Kontseiluaren abenduaren 27ko 828/2019 Erabakiaren, abenduaren 22ko 671/2020 Erabakiaren eta abenduaren 21eko 774/2021 Erabakiaren bidez onetsi ziren.

Bigarren. 1. Euskal Funtzio Publikoaren 6/1989 Legeak 55. eta 56. artikuluetan jasotakoa betez, eskala bakoitzean gorde beharrekoak dira barne promozioz betetzeko aipatutako eranskinean jasoak.

2. Barne sustapeneko txanda orokorrean betetzen ez diren plazak sistema irekiaren bidez deitutako plazei gehituko zaizkie, langileen birjartze tasatik eratorritako plazen gehieneko mugaren barruan.

Hirugarrena. 1. Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen Testu Bategina onesten duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak 59. artikuluan xedatutakoa eta Euskal Funtzio Publikoaren 6/1989 Legeak xedapen gehigarrietako zazpigarrenean ezarritakoa betez, bai eta aplikatzekoa den araudia ere, lanpostu hutsen erreserba ezartzen da ehuneko 33ko desgaitasuna edo handiagoa duten pertsonak betetzeko, betiere hautaprobak gainditzeko badi-tuzte eta, bere garaian, egiaztatzen badute adierazi den desgaitasun maila dutela eta lanak eta eginkizunak betetzearekin bateragarria dela aplikatzekoa den legerian ezartzen den moduan.

2. Desgaituentzat gordetako plazak plaza arruntekin batera deituko dira, erabaki honen eranskinean ezarri denez, eta deitzen diren hautapen prozeduretan gainerako hautagaiek di-tuzten baldintza berberekin onartuko dira. Gainera, hala eskatzen duten desgaituentzat, hauta-probetan denbora eta baliabideak egokituko dira, baldin eta egokitzapen horiek proben edukia aldatzen ez badute edo horietan eskatzen den gaitasun maila gutxitzen edo kaltetzen ez bada.

Laugarrena. Aipatutako eranskin horretan zehazten da zein plazak daukaten euskararen hizkuntza eskakizuna derrigortasun data iraungita, ezinbestean izan behar dena lanpostua betetzeko.

Bosgarrena. Oposizio-lehiaketa izango da plazetara sartzeko sistema orokorra.

Seigarrena. Eskaintako plazak eskuratzeko prozedura eta betekizunak kasuan kasuko deial-dietan zehaztuko dira, bigarren diputatu nagusiorde eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuaren foru aginduz onetsiko diren oinarrien arabera.

Zazpigarrena. Argitaratzea erabaki hau eta bere eranskina ALHAOn, eta haren laburpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian.

Zortzigarrena. Bat etorri 2022rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 28ko 22/2021 Legeak 20. bi artikuluan ezarritakoarekin, enplegu publikoaren eskaintza gauzatzeko hautaketa prozesuen deialdiak 3 urteko epe luzaezinean argitaratu beharko dira, erabaki hau argitaratzen denetik hasita.

Bederatzigarrena. Erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri ahal izango da, bi hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Gasteizko Adminis-trazioarekiko Auzietarako Epaitegian, edo bestela, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsua, hilabeteko epean, ebazpena eman duen erakundean; hori guztia, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46.1. artikuluan aurreikusitakoaren arabera eta Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. artikuluekin lotuta.

Gasteiz, 2022ko abenduaren 20a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Bigarren diputatu nagusiordea eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua

CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR

Funtzio Publikoko zuzendaria

ADOLFO LANDER VERA



ERANSKINA											
TALDE AZPI TALDEA	ESKALA, AZPIESKALA, ETA KLASEA	PLAZA	SISTEMA IREKIA				BARNE SUSTAPENEKO SISTEMA		GUZTIRA	LABURTZAPENAK: DDHE: DERRIGORTASUN DATADUN HIZKUNTZA ESKAKIZUN DDGHE: DERRIGORTASUN DATARIK GABEKO HIZKUNTZA ESKAKIZUNA	
			TXANDA OROKORRA	EZINDIENTZAT GORDETAKO KUPOA		TXANDA OROKORRA	TXANDA OROKORRA				
				DDHE	DDGHE			DDHE			DDGHE
A (A1)	11	Administrazio Orokorreko teknikariak	4	2	--	1	1	--	8	ESKALAREN KODEAK: 11: ADMINISTRATZIO OROKORRA - TEKNIKARIAK 15: ADMINISTRATZIO OROKORRA- KUDEATZAILAEAK 211: ADMINISTRATZIO BEREZIA - TEKNIKARIAK - GOI-MAILAKO TEKNIKARIA 212: ADMINISTRATZIO BEREZIA - TEKNIKARIAK - ERDI-MAILAKO TEKNIKARIA 213: ADMINISTRATZIO BEREZIA- TEKNIKARIAK-TEKNIKARI LAGUNTZAILAEAK 221: ADMINISTRATZIO BEREZIA - ZERBITZU BEREZIAK - EGINKIZUN BEREZIAK 222: ADMINISTRATZIO BEREZIA- ZERBITZU BEREZIAK-LANBIDEETAKO KUDEA	
		Ekonomia-Enpresa zientziak	3	2	--	--	1	--	6		
	211	Zuzenbidea	3	2	--	--	1	--	6		
		Kiroltetako goi-mailako teknikaria	1	--	--	--	--	--	1		
		Bide, ubide eta portuetako ingeniaria	--	1	--	--	--	--	1		
A (A2)	221	Antolaketa	1	--	--	--	--	--	1		
	15	Administrazio Orokorreko Erdi Mailako Teknikaria	6	--	1	--	3	--	10		
		Nekazaritzako ingeniari teknikoa	1	1	--	--	--	--	2		
	212	Herri lanetako ingeniari teknikoa	--	1	--	--	--	--	1		
A (A2)		Arkitekto teknikoa	2	2	--	--	--	--	4		
	221	Bibliotekonomia eta dokumentazioa	2	--	--	--	--	--	2		
		Basozaintza	3	--	--	--	--	--	3		
C (C1)	213	Automobilgintza, Teknikari Espezialista	--	1	--	--	--	--	1		
C (C2)	222	Gidariak (Korporazioko auto gidaria)	--	1	--	--	--	--	1		
			26	13	1	1	1	6	--		47